



# Euskal Herriko Laborantza Ganbararen FORMAKUNTZEN KATALOGOA

2025eko urtarrila - ekaina

Ikastaldiak jarraiki, etxaldean bere praktikak hobetetzeko  
eta gaitasunak zabaltzeko, laborari gisa



 RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

La certification qualité a été délivrée au titre de la catégorie d'action suivante :  
ACTIONS DE FORMATION

## ► SAR HITZA

2005eko urtarrilaren 15ean sortu zen Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG). 1901 legedian oinarritzen den laborantza-garapenerako elkarte da. Laborantza herrikoi eta iraunkorraren alde lan egiten du, laborantza eta laborarien zainketan eta tokiko garapenaren alde.

Bere proiektuaren baitan, EHLGk laborarieri zuzenduak diren formakuntzak proposatzen ditu. Horien xehetasunak 2025eko 1. urte erdiko katalogo honetan aurkituko dituzu.

### INFORMAZIO PRAKTIKOAK

Formakuntzen agenda gure webgunean eskura daiteke : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org). Beharrez, dokumentua mailez edo postaz bidaltzen ahal dautzugu.

Baliteke finkatu datak, tenoreak eta lekuak aldatzen ahal direla, bai eta ere beste formakuntza batzu proposatuak izaita : beraz ez ahantz erregulariki gure webguneko agenda begiratzea [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

Izen emaita gutti gora behera formakuntza baino 15 egun lehenago idekia da.

#### Nola egin ?

Zure izena linean eman dezkezu, gure webgunean : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)  
edo telefonoz : 05 59 37 18 82

#### Baliabide pedagogiko eta teknikoak :

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) talde profesionalak hainbat ekintza martxan jarri ditu laborari, desmartxa kolektibo eta elkargoen zerbitzuko. EHLGko formatzaileek proposatzen dituzten formakuntzak beren gaitasun tekniko eta pedagogikoetan oinarritzen dira, tokian tokiko esperientziek indarturik.

Gai zehatz batzuentzat, kanpoko mintzalariak jinarazten ahal ditugu. Horien goi mailako gaitasunak heien esperentzia eta formakuntzan oinarritzen dira.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako baliabide tekniko guziak mobilizatuak izan daitezke formakuntza saioa baldintza hoberenetan iragaiteko.

#### Segipen pedagogikoaren eta ebaluazio modalitateak :

- Formakuntza bukaeran, formatzaileak taldeak lortu ezagutzak ebaluatuko ditu.
- Formakuntza bukaeran, parte hartzaile bakoitzak satisfamendu fitxa bat beteko du

#### Publikoa eta betebeharrak :

- Norentzat : orokorki Euskal Herriko laborarieri zuzendua
- Finantzamendua : VIVEA-k bere gain hartuko du urtesaria ordaindu duten laborarientzat. Besteentzat, zuen OPCO-ak bere gain hartzen ahal duenez ziurtatuko dugu. Ez bada hala, baliteke parte hartze ekonomiko bat galdegina izaita. Xehetasun gehiagorentzat gurekin harremanetan sar zaitez.
- Aitzinetik bete behar diren baldintzak : parte hartzeko ez da lehenago bete behar den baldintzarik formazioari doakionez. Aldiz, proposatu formakuntza batzuen kasuan lehenago bete behar diren baldintza batzu galdeginak izanen dira (ezagutza tekniko edo estatusari lotuak)

#### Ahalmen urritasun egoeran diren pertsonendako

- Formakuntza lekura sartzeko : gure egoitza ahalmen urritasun egoeran diren pertsoneri egokitua da, gurekin harremanetan sar zaitez.
- Formakuntzan parte hartzeko : ahalmen urritasun egoeraren arabera, formakuntza egokitzen ahalko dugu. Informazio gehiagorentzat edo/eta zure beharren berri emaitako, gurekin harremanetan sar zaitez

**Argitasun gehiagorentzat :** Maider Larrieu edo Nathalie Susperregui, 05 59 37 18 82

<b>Lurzoruen oreka mineral eta biologikoa – Polilaborantza eta zerealak</b>	
2025/01/14, asteartea - 9.30/17.30 - Lekua : EHLG (polilaborantza eta zerealak) 2025/01/15, asteazkena - 9.30/17.30 - Lekua : EHLG (pentzeak)	7 ordu, egun 1
<p>Formatzailea : Txomin Elozegi, agronomoa, alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2022ko apirilaz geroztik</p> <p>Mintzalaria : Francis Bucaille, laboraria, agronomia aholkularia, Gaïago sozietatearen sortzaileetariko bat, lurzoruen ikerketan, diagnostiko agronomikoan eta bizigarritasunean berezitua.</p>	
<p>Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzaileek luraren funtzionamendua eta oreka mineral eta biologikoaren garrantzia berenganatzen jakinen dute. Beren lur analisiak elgarrekin irakurri ondotik, luraren hobetzeko praktikak plantan emaitzeko gai izanen dira.</p>	
<p>Egitaraua / edukia :</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Goizean : lurzoruetako oreka minerala (errespetatu beharreko ratio handiak : Mg/Ca, P/K, oligoelementuen garrantzia eta kostu txikiagoan ekartzeko manerak, onkailu mineralen forma desberdinak eta lurzoruetako aktibitate biologikoan duten eragina) ; oreka mikrobiologikoa (humusa sortzeko eta karbonoa lurzoruan emendatzeko gakoak, elementu kimiko errazioak errespetatuz, luraren bizi biologiarentzat beharrezkoak diren oligoelementuak, luraren lantze ezberdinak eta estalkiak).</li> <li>Arratsaldean : parte hartzaileek ekarritako lur analisiak eta lur laginak aztertuko dituzte, eta heien lurak orekatzeko ekintza sinpleak proposatuko dituzte, elkarlanean.</li> </ul>	

<b>MAEC NA 23-27 - Zuhaitz eta zuhaixken kudeaketa agro-oihangintzan</b>	
- 2025/01/21, asteartea, Mehaine, 9.00 – 17.00 - 2025/02/26, asteazkena, lekua finkatzea, 9.00 – 17.00	7 ordu aldi oro, egun 1
<p>Formatzailea : Amelie Charoy, agro-oihangintza sailako animatzaile/teknikaria, EHLGn 2022ko azaroaz geroztik</p> <p>Mintzalaria : Vincent Soubieille, oihan kudeatzaile profesionala, bere kondu ari den formatzaile diplomaduna</p>	
<p>→ 2023az geroztik MAEC kontratu batean engaiatu direnentzat, jakin formakuntza hau segituz 2 urte barne bete behar den formakuntza baldintza betetzen duela</p>	
<p>Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzaileak beren etxaldeko hesiak iraunkorki kudeatzeko gai izanen dira ikasiko dituzten printzipioak eta moldeak aplikatuz.</p>	
<p>Egitaraua / edukia : Formakuntza horretan, landaketa gazte bat eskuz kudeatzen ikasiko duzu, bai eta ere zuhaitz ta zuhaixken mozten. Horretarako, aipatuak izanen diren gaiak hauek izanen dira : lan-garaiak, lan teknikak, tresneria nola hautatu, segurtasunez erabili eta mantendu.</p>	

<b>MAEC NA 23-27 Trontzo zerraren erabiltzen eta entretenitzen ikasi, etxaldeko arbolak iraunkorki kudeatzeko xedez</b>	
2024/12/05, eta 2025/03/13, ostegunak, Lukuze, 9.00/17.00	14 ordu, 2 egun
<p>Formatzailea : Amelie Charoy, agro-oihangintza sailako animatzaile/teknikaria, EHLGn 2022ko azaroaz geroztik</p> <p>Hizlariak : Vincent Soubieille, oihan kudeatzaile profesionala, bere kondu ari den formatzaile diplomaduna</p>	

→ 2023az geroztik MAEC kontratu batean engaiatu direnentzat, jakin formakuntza hau segituz 2 urte barne bete behar den formakuntza baldintza betetzen duela

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzaileek trontza zerra segurtasun osoan erabiltzen jakinen dute, etxaldeko arbolak iraunkorki kudeatzeko egoera batean.

Egitaraua / edukia : Formakuntza honetan, etxaldeko arbolen entretenitzeko molde desberdinak erakutsiak izanen zaizkizute (enbor oinean moztu, abarrak moztu, trantzatu...) bai eta ere material egokia (tresneria ttipia) prestatzen eta erabiltzen ikasiko duzue, baita trontzozerra mantentzen ere (kateak, zorroztea, etab.). Halaber, trontzozerra segurtasunez erabiltzeko arauak ikasiko dituzue (segurtasun jantziak, jestuak, posturak...) eta xantierrak horien arabera antolatuko dituzue.

## Ogi-irina egiteko garia landu eta sargai gutirekin kudeatu

2025ean (egun erdiko formakuntza sesioak, EHLGn edo Etxalde batean)

7 ordu, bi egun erdi

**Formatzaileak:** Txomin Elozegi - agronomoa, alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2022ko apirilaz geroztik

Emmanuelle Bonus - Vivean formatzaile gisa erreferentziatua - landare produkzio sistemetako eta praktika agronomikoen hobetzearen animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2012-az geroztik

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzaileak ogi-irina egiteko garia sargai gutirekin ekoizteko eta manera berritzaileak plantan ezartzeko gai izanen dira

**Egitaraua / edukia:** Egun erdi hauetan aipagaiak hauek izanen dira : garigintza teknikoki menperatu, ibilbidearen hein garrantzitsuenak ezagutu, eritasunak ezagutu eta kudeatu (metodo alternatiboak, berritzaileak eta tratamendu heina), tokiko traba berezieren moldatu

- **2. Gaia - Apirilaren 4a : Gariaren eritasunen kudeaketa**  
**Egitaraua / Edukia :** eritasunak agronomikoki kudeaketzeko teknika berritzaileak, biokontrola metodo berriak *septoriose* eta *fusariose*-en kontra, eritasunak ezagutu, tratamendu heinak, ...
- **3. Gaia - Agorrilaren 6a : Metodo agronomikoak gari uzta eta baldintza klimatikoei egokitu**  
**Egitaraua / Edukia :** urteko gari uztaren kausitzak eta hutsegiteak, biokontrolen bilana, luraren estruktura, gari motaren hautua (klima eta luraren arabera) + nahi dutenentzat, bakoitzak ukan emaitzen arabera problematika bat definitua izanen da ta formatzailearekin etxaldean landua.

## Certiphytoa berritu (« décideur en entreprise non soumise à agrément » kategoria)

- 2025/03/20, osteguna, EHLG-n (Ainiza Monjolose) : 9.30 / 17.30  
Beste egun batzu finkatuak izanen dira, 2025ean (urtean zehar)

7 ordu, egun 1

Norentzat / Aitzinetik bete behar diren baldintzak : laborarientzat, oraino balio duen banakako Certiphyto agiriaren titularrak direnak, produktu fitosanitarioak erabiltzen dituztenak eta Certiphytoa berritu nahi dutenak – onespelik gabeko enpresako erabakitzaileak. Berritzea berantenez baliozkotasun epea pasatu baino 3 hilabete lehenago egin behar da.

>> Zure Certiphyto agiria 5 urteko berritzeko, urte bat baduzu dokumentu hauek DRAAFari bidaltzeko, mailez : "conseil stratégique phytosanitaire" CSP agiria edo CSP hitzordua baduzula egiaztatzen duen egiria edo CSPrik behar ez duzula baieztatzen duen dokumentua (HVE, AB agiria duten etxaldeenentzat adibidez)

Formatzailea : Txomin Elozegi - alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012az geroztik

Helburu orokora: parte-hartzaileak produktu fitofarmazeutikoen erabiltzearekilaran lotura duten arauen, ingurumenaren eta osasunaren gaineko inpaktuen eta metodo alternatiboen inguruko ezagutzak eguneratu edo azkartuko ditu. Helburua da norberak bere produktu fitofarmazeutikoen ziurtagiria (Certiphyto) eskuratzea.

Egitaraua/edukia :

- Ingurumen-araua eta segurtasuna (2 ordu)
- Osasuna eta segurtasuna produktuak hedatzen dituztenentzat eta publikoari idekiak diren eremuentzat (2 ordu)
- Produktu fitofarmazeutikoen erabilera ttipitu eta metodo alternatiboak ezagutu (3 ordu)

## Erretreta hartu, etxaldearen segida utzi - 2025eko formakuntza zikloa

2025eko apirila eta buruila artean, EHLG-n (Ainiza Monjolose)

17,5 ordu, 5 egun erdi

Norentzat / Aitzinetik bete behar diren baldintzak: Etxaldearen segida uztekoa duten Euskal Herriko laboarentzat, arra-hartzailea atxemana ala ez, segida hartzea familia baitan egiten bada ala familiatik kanpo. Bai eta ere etxalde bat xekatzan duten laborarieri idekia.

Bakotxaren egoeraren arabera, modulo guziak edo batzuk segituak izaiten ahal dira.

Formatzaileak : Véronique Gelak, Instalazio/Transmisio animatzailea, EHLGn 2021az geroztik

Formakuntzaren helburua: Formakuntza eta gero, parte hartzaileak etxaldearen segida uztea aitzinetik pentsatzeko eta prestatzeko gai izanen dira.

Beren ibilbideetan kurutzatuko dituzten kontseilariak (jurista, notario, esperta...) proposatuko dizkieten hautuen ulertzeko eta eztabaidatzeko gai izanen dira.

- **1. Gaia - data finkatzekoa** : Erretreta dretxoak, MSAko aholkulari batekin  
Egitaraua / Edukia : erretreta adina norberaren ibilbidearen arabera / erretreta kalkulatu /segitzen ahal diren aktibitateak / urrats administratiboak + epeak
- **2. Gaia - data finkatzekoa** : Etxaldea estimatzea, lur esperta batekin  
Egitaraua / Edukia : etxaldearen aktibo eta pasiboen identifikazioa / lur espertaren txostena / ondare balioa eta balio ekonomikoa, etxaldearen ahalmen ekonomikoa eta finantzarioa zehazteko irizpideak.
- **3. Gaia - data finkatzekoa** : Zer egin lurrekin ? EHLGko juristarekin  
Egitaraua / Edukia : salmenta (desmartxak, epeak, prezioa / alokatzea (kontratu motak, prezioen taula, lurren esplotatzeko baimena / hil arteko errenta / kontratu hauen alderdi on eta txarrak
- **4. Gaia - data finkatzekoa** : Familia arrañamenduak, notario batekin  
Egitaraua / Edukia : dohaintza, dohaintza partekatze, salmenta, usufruktu / geroagoko saria, alokailu... / nola xuxenki kudeatu etxaldearen segida uztea
- **5. Gaia - data finkatzekoa** : Zerga neurriak, EHLGko juristarekin  
Egitaraua / Edukia : *Dutheil* hitzarmenaren edukia eta beste zerga-baliabideak, epeak / epe luzeko alokatze kontratuak / laborantzako funtsen zatikatzea

## MAEC NA 23-27 Bere lurzoria ezagutu landare adierazleeri esker

2025/03/25, asteartea, EHLG-n : 9.30 - 17.30

7 ordu, egun 1

Formatzailea : Emmanuelle Bonus, alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2012az geroztik.

→ 2023az geroztik MAEC kontratu batean engaiatu direnentzat, jakin formakuntza hau segituz 2 urte barne bete behar den formakuntza baldintza betetzen duela.

Helburu orokorra : Formakuntza eta gero, parte hartzaileek beren lurzoruaren diagnostika baten prinzipioak zoin diren jakinen dute, landare adierazleeri esker.

Egitaraua / Edukia :

- Formakuntza denboran, landare bio-adierazleak ezagutzen ikasiko duzu, zure luraren bilakaera ulertzeko eta bere kalitate biologiko eta estrukturala ebaluatzeko.
- Zure luraren diagnostikoaren arabera ezarri behar diren ekintza agronomiko eraginkorrak identifikatzen ikasiko duzu : luraren aireztatzea eta eskarifikatzea, gainereitea, belar pusatzearen kudeaketa alha edo pikatzearentzat, emendakinen egokitzea, estalpean ereitea.
- Azkenik, zure esperientzia partekatzen ahalko duzu, eta tokian tokiko metodo berritzaileeri buruzko emaitzen aurkezpena ukanen duzu.

## Belar eta soroak sabaian idorrazteko sistemaren oinarriak

- 2025/04/29, asteartea, EHLG-n : 9.30 - 17.30

7 ordu, egun 1

Formatzaileak : Emmanuelle Bonus, landare produkzio sistemetako eta praktika agronomikoen hobetzearen animatzaile aholkuraria, EHLGn 2012-az geroztik

Marina Deysine, hazkuntzan berezitua den animatzaile aholkuraria, EHLGn 2019az geroztik

Helburu orokorra : Formakuntza eta gero, parte hartzaileek belar eta soroak sabaian idorraztearen interes eta oztopoak identifikatzen jakinen dute.

Egitaraua / Edukia :

- Belar eta soroak sabaian idortze sistemaren ibilmoldea
- Sistema honi egokiak diren belar motak ; belarra mozteko eta sartzeko praktika egokiak

Badu 20 urte Euskal Herriko Laborantza Ganbarak, laborariak formatzen eta jarraitzen dituela.

Gure formakuntza eta egunaldi tekniko guziak linean dira : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

**Gure berripaperari harpidetu**

Gure aktualitate eta formakuntza eskaintza zure e-mezutegian zuzenki !

HARPIDETZEN NAIZ **HEMEN**